



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Iratxe Ansak, Espainiako Dantza Sari Nazionalak, eta Igor Bacovichek *Al desnudo* taularatuko dute Arriagan, dantza emanaldi limurtzaile eta bertuosismoz betea

- **Metamorphosis Dance** konpainiak, bi artistek sortutakoak, **exijentzia-maila handiko ikuskizun dinamikoa** eskaintzen du, musika eta mugimendua aise batzen dituena.
- **Arriaga Antzokiak** emanaldi bat eskainiko du ostegun honetan, **otsailaren 18an, 19:00etan**.

Bilbo, 2021eko otsailaren 15a.- Interpretazio kategorian 2020ko Espainiako Dantza Sari Nazionala jaso berritan, **Iratxe Ansa** gure koreografo eta dantzari nazioartekoenetakoa da. Dantza garaikideko munduko konpainia txalotu eta miretsienetako batzuetan aritu da hogeitau urte baino gehiagoz, besteak beste, Nederlands Dance Theatren, Basel Balleten eta Espainiako Dantza Konpainia Nazionalean —Nacho Duatoren zuzendaritzapean—. 2019an, **Igor Bacovich** dantzari eta koreografo italiarrarekin batera, **Metamorphosis Dance** konpainia sortu zuen, non bi sortzaileen esperientziak, pasioak eta dantza ulertzeko modu zorrotz eta askeak bat egiten duten. Ansa eta Bacovichen lana —beti bezala, exigentzia-maila handikoa, oso fisikoa eta bertuosismo handikoa— inoiz ez bezala mamitzen da sorkuntza-lan berezi honetan, Bilboko (eta udalerrri mugakideetako) ikusleek ostegunean, otsailaren 18an, 19:00etatik aurrera Arriaga Antzokian gozatu ahal izango duten ***Al desnudo***n, alegia.

Al desnudo ikuskizuna dinamikoa da, eta aise batzen ditu musika eta mugimendua. Kontrasteen arteko jolasa da: hasierako sentsualitatea —duo klasikoa, **Philipp Glassen** erritmoan—, emeki dantza oso fisikoa eta esplizitua bihurtzen da, **Johan Wieslanderren** konposizioek gidatuta. Beraz, musika emozional batekin hasten da eta tentsio hori ezin hobeto egokitzen da bikote baten harreman gatazkatsura, hori baita Ansa eta Bacovichek hasieran erakutsi nahi dutena, eta, ondoren, musika garaikidearekin egindako ikuskizunaren bigarren zatira igarotzen gara; zati horretako musika esperimentalagoa da, tekno estilo oso finekoa, eta oso ondo funtzionatzen du eszenako argien erabilerarekin. Izan ere, musikak eta argiztapenak, hasieran, espazio txiki bat osatzen dute *Al desnudo*n eta, pixkanaka, geruza berriak gehitzen zaizkio, argi gehiagorekin, sakonera gehiagorekin eta leku berriekin. Izan ere, **Danilo Moroni** argiaren artisauaren eskutik, argiztapena dantzariak bezain protagonista da. Naturalismo bitalak hartzen du agertokia, eta ikuslea bildu egiten du, piezak aurrera egin ahala, *in crescendo* etengabean.

*Al desnudo*k hainbat elementu integratzen ditu mugimenduan dagoen laborategi eszeniko moduko batean, hasierako bikotetik abiatuta, pixkanaka eszena ezberdinak

deseraikiz. Proiekzioek, musikak, teknikak, inprobisazio gidatuak eta **Aia Kruse Goenagaren** offeko ahotsak, Ansa eta Bacovichen testuak interpretatzen dituenak, bat egiten dute agertokian. Ikuskizunean, grabatutako bideoa eta oholtza gainean zuzenean gertatzen ari denaren streaminga uztartzen dira. Emanaldia etengabe eraldatzen ari den espazio intimo batetik abiatzen da, ikuslea Metamorphosis Dancen lanek berezkoa duten giro fin eta dotorean murgiltzeko. Konpainiak prestigio handia du nazioartean, izan ere, Ansa eta Bacovichek osatutako tandemak 30 herrialde baino gehiagotan egin du lan eta 20 dantza konposizio baino gehiago koreografiatu ditu. Orain, Arriagara iritsiko dira *Al desnudo* lanarekin.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 10 eta 21 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Al desnudo

Koreografia eta antzezpena: **Iratxe Ansa, Igor Bacovich.**
Artista bisuala: **Danilo Moroni.**

Musika: **Philip Glass, Johan Wieslander.**

Musika-moldatzailea: **Miguel Angel Burgos.**

Argiztapena: **Danilo Moroni.**

Eszenografia: **Iratxe Ansa, Igor Bacovich, Danilo Moroni.**

Jantziak: **Carmen Granell.**

Testua: **Iratxe Ansa, Igor Bacovich.**

Ahotsa: **Aia Kruse Goenaga.**

Ekoizpen taldea: **Spectare.**

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus